

6 mantangorri

CO AZOKA KOLOREZTATZEKO KOADERNOA



Izenburua: 'Ametsen margolari'. **Egilea:** Emaisia emakumeen elkartea eta Urtxintxa eskola. **Marrazkiak:** Eñaut Aiartzaguena. **Orrialde kopurua:** 23 orrialde. **Argitaletxea:** Emaisia.

an, hainbat eragilek parte hartzen dutela: eskolek, familiek, lagunek... Telebista ere hor dago, zoritzarrez; jostailuak... Guraso eta hezitaileok beste mundu justuago bat posible dela ikusarazten badiegu, haurrek euren begitxoekin ikusi ahalko dute. Denon artean bestelako harremanak sor ditzakegu. Zer transmititu nahi diegun era-bakitza gure esku dago: tarte, jarrera sexistarik ez izatea.

Xake Mate! bildumaz gain, bada merkatuan helburu bera duen materialik?

Bai, hainbat jolas daude. Hainbat elkartea dabilta lan hori egiten, eta, zorionez, baditugu hainbat ipuin eta jolas. Gabonetako jostailuen katalogoak hartu eta ezusteko nahiko kaskarra hartzen duzu; agian erakutsi beharko diegu jostailu horiek ez direla ez neskenak eta ez mutilenak, denonak izan daitezkeela. Horrela, katalogo horiek irudikatzen dutena apurtzea lor dezakegu. Badakigu askotan marea handi baten aurka goazela, baina posible da horri aurre egitea, eta jende asko gabilta lanean hori hala izateko. Bakoitzak bere alea jartzen badu, aldaketarako bidea egingo dugu.

Kontzientzia hartu beharra dugu?

Bai horixel! Helduon kontzientziatik hasi behar dugu, bai haurrek ditugunok eta bai horien heziketaz arduratzen garenok. Gure jarrera aldatzetik hasi behar dugu, haurrek horren bidez ikas dezaten.

Ametsen margolari du izena koadernoak: egunen batean errealtitate izango diren ametsak ote?

Espero dugu baietz! Gu, behintzat, hemen ari gara mundua eraldatu nahian. Ez bakarrik hori: bestelako pertsonak nahi ditugu. Hori lortzeko guk geuk ere aldatu behar dugu, eskemak apurtu. Ez gara burbuila batean bizi; hainbat gauzak eraigin dute gure hezkuntzan, eta, noski, akatsak ere baditugu. Helduak gara, eta badakigu gauzei nola egin aurre, baina askotan hainbat zirkitutatik ihes egiten digute gauzak.

Izaskun Guarrotxena

'AMETSEN MARGOLARI' KOLOREZTATZEKO KOADERNOAREN KOORDINATZAILEA

«Bakoitzak bere alea jartzen badu, aldaketarako bidea osatuko dugu»

M argotuz ikasteko modua izan nahi du Ametsen margolari koloreztatzeko koadernoak. Ohikoen ordez, ahalik eta kolore gehien erabiltzeko sortu dute Urtxintxa eskolak eta Emaisia emakumeen elkartea, elkarlanean. Betaurreko moreak ditu azalean, hain zuzen ere, haurrei errealtitatea horiek jantzita ikusarazi nahi dietelako. Hain aurretik, ordea, helduek ere janztea «beharrizko» da. Xake Mate! jostailu eta baliabide pedagogikoen bildumako hamargarren alea da; bi eragileek jarrera sexistei aurre egiteko sortu zuten bilduma hori, hain zuzen ere.

Nondik dator Ametsen margolari egiteko ideia?

Emaisia eta Urtxintxaren artean urtero egin izan dugu Xake Mate! deitzen dugun bilduma. Duela hamar bat urte sortu genuen, jolasak eta begirale eta hezitaileentzako materialak sortzeko. Egun haurrentzat sortu duten imajinarioa oso markatuta dago; este-reotipo oso konkretuetan oinarritzen da. Beraz, pentsatu genuen badela garaia beste era bateko imajinarioak sortzeko eta horretarako materiala garatzeko. Koloreztatzeko koadernoarekin, bestelako erreferente batzuk sortu nahi izan ditugu.

Zer-nolako

marrazkiak ditu koadernoak?

Denetarik: emakumeak hainbat lanbidetan, hainbat gorputz eredu, identifikaziorik gabeko hainbat haur eredu, hainbat kirol non neskak zein mutilak jolasten diren...

Mundua betaurreko moreekin ikusteko gonbita egin duzue. Zer ikusten da horien bidez?

Beste mundu bat ikusten da horien bidez, non pertsona guztiak berdinak garen, balio berak ditugun eta, azken batean, inolako genero diskriminaziorik ez dagoen. Sistema patriarkala apurtu nahi dugu, eta berdintasunean oinarritutako jendartea sortu.

Gizon eta emakumeen parekidetasunaz gain, bestelakoak ere landu dituzue.

Bai, ezintasun fisikoak dituztenekin, etorri berriak direnekin... Kontuan izan behar dugu egun Euskal Herria oso plurala dela eta hainbat koloretakoa dela. Betaurreko moreak jantzi eta bestelako heziketa bat ematen badiegu gure haurrei, balio feministean oinarrituta, eurak ere gai izango dira koloretako mundu hori ikusteko.

Zer egin dezakete guraso eta hezitaileek balioen transmisioko?

Asko! Egia da haurren jendarterazte prozesuan, balioen transmisioko

